

Tomas Iriondok bere Tesia irakurri du.

2016/07/22

Gaia-ren esperientzia erakustea da ikerketa honen helburua, baita erreferentziazko eredu bat eraikitzea, Cluster-en lan-moduen inguruan, berrikuntza-lankidetzaren ordezkaritza gisa beren izaera indartuz.

Lanak ondorengo erantzunak bilatzen ditu, adibidez, nola jokatu behar du Cluster batek bere erakundearen artean, osagarriak zein lehiakideak direnean, edota beste kolektiboetako erakundeekin, lankidetzaren eta berrikuntzaren garatu eta sustatzeko?. Izan ere, hau da Cluster ezberdinen funtsezko arrazoia, hau da Gaia-ren izaera.

Eredua osatzen duten hiru irizpide izaeren inguruan antolatzen da ikerketa: (1)-Cluster-aren garapenerako zuzendaritza, egitura eta edukia ahalbidetzen duten ordezkaritza; (2)-Berrikuntzalankidetzaren sustatzeko lan-modua; (3)-Garatutako jardueren ondorioz lortutako emaitzak eta sektore hazkundera eragina.

Esperimentazioak deskribatutako zein egituratutako jardueren ondorio zuzena dutela frogatzen du Cluster-a osatzen duten enpresen emaitzen garrantzian, lehiakortasun-ratioak eskeinitzen, era berean lurraldean sektorea indartuz, baita bere jasagarritasuna ere.

Berrikuntza-lankidetzaren lehiakortasun abantailak eskaintzen dituelaren inguruan oinarritzen da lan hau (emaitzen kalitatea, erantzun-denbora, eta eskeinitako soluzioaren zenbaterainokoa), baita enpresagintza ohiturek ere, lurralde bateko sektore baten lehiakortasuna sendotuz, hauek guztiak alderdi garrantzitsuak izanda, kontutan hartuta gainera leian jarduten dela ingurune ireki, global eta garapen konstantean dagoena.

